

Zigarroa eta kafea

ARGI IBILI! Aldamenean igarotzen denaren larruzala urratuz “alde hemendik” esateko berea arantzaz janzten duen laharra (*Rubus fruticosus*), janez gero lagun minenek bizkarrerean hartu eta hilerrira eramanean zaitzaten hostoa pozoiz asetzen duen hagina (*Taxus baccata*), kolpez seko gelditu arte bihotza dantzan jartzeko gauza den gaiaz sustrai muturretik lore punttaraino blaitzen den kuku-praka bihozgabea (*Digitalis purpurea*)... Bere burua babes-teko zertaraino iritsi daitekeen landarebanakoa! Belarjaleon hortzak urrutiratzeko, jakina.

Guk, adibidez, landare hori utzi eta beste gozoago bati egingo diogu kosk. Jate kontuetan gu baino egoskorragoak badira, pozoiak pozoia landare kaltegarrienari ere erasoka jarraitzen dutenak. Setoso-temoso alaeanak!

Tabako-belarrak (*Nicotiana tabacum*) badu egoskor horietako bat: tabako-belarraren har grisa. Tabakoak berezko duen pozoia, nikotina, harrari bost eta kosk. Nolanahikoa ez den pozoia horrek barrenean kalterik ez egiteraino eboluzionatu duen bakanetakoa da har hori.

Har horrek, eboluzioan askok



M. MARTIN VICENTE-CC BY SA

Tabakoaren landarea (*Nicotiana tabacum*).

usteko ez lukeen arerioa topatu du tabako-belarrean, sekulakoa: tabako erretzaile jendea. Erretzaileak eskuera behar du noizbehinkako dosia, ordu erdirokoa, ordurokoa, otordurokoa, larru joaldirokoa...

Eta hori ezin eztabaidatuzkoa da, bai ala bai. Tabako erretzaileak patrikatik hartua duen mendekotasunak pentsaezina egiten du belarrak gabeko tarte bat, egun bakar bat, ordu bakar bat, minutu bat... Har ziztrin batek nola joko digu adarra! Hark jan gure plazeraren iturria? Kosk eta kosk desagerrarazi nire zoriontasuna? Irten-

bidea patrikakoak biltzen dituen tabako ekoizleak asmatu du. Tabako-belarra genetikoki eraldatu dute, eta koskaizoa ematera hurbiltzen zaion hara izorratu. Nola bada? Belarrari kafeina sortzeko gaitasuna eman diote. Eta nikotina bai, nikotina gustukoa du, baina, kafeina? Mesedez, faborez eta otoi, kafeinarik ez! Batek zioena: kafean nikotina bila hasi beharko dugu! Eta, zenbat apustu? Konturatzerako hemen dugula arantzarik gabeko laharra? ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! Zure irakurketek edonola eta edonoiz kimatzearekin sentsibilizatu naute. Kimatzekotan, behar bezala eta sasoi egokian kimatzen ikasi nahi nuke. Ezagutzen al duzu euskaraz, gaztelaniaz zein frantsesez idatzia den libururik ezagutza horretaz jantzi nadin? Mila esker.

Garazi Cristobal (Urruña)

Kaixo Garazi. Inausketari buruzko liburu aukera handia da. Horien artean duela gutxi argitaratutako hau gomendatuko dizut: *Manual de poda suave. Árboles frutales y ornamentales. Respetando al árbol y su forma natural*. Nafarroako La Fertilidad de la Tierra etxeak argitaratu du

eta Alain Pontoppidan ezagunak idatzia da. Zuhaitzetan aparteko interesik izanez gero, jo baita ere www.agencedesarbres.org gunera; Pontoppidan bera elkarte horretako sortzaileetako bat da.

Ikasketa on. ■